

#### DATU PERTSONALAK

Jaun/Andrea		IFZa	
Jaun/Andrea		IFZa	
Jaun/Andrea		IFZa	
Jaun/Andrea		IFZa	

#### Zer erreferentzia dauka nire kontratuak?

Nire kontratua da

Hileko ordainagirian aurkituko duzu erreferentzia, hurrengora sartuz, [www.caixabankpc.com](http://www.caixabankpc.com) > bezeroaren eremu pribatuaren barruan > Kontratuak atalean edo doako telefonora deituz, 900 101 734 (astelehenetik larunbatera 09:00etatik 21:00etara)

#### Zer baldintza biltzen ditut zorraren sektoreko luzamendua eskatzeko?

**COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, hurrengo aldaketa ekonomikoetako bat sufritu dut:**

(hautatu aukera bat):

- Besteren konturako langilea naiz eta langabezia egoerara igaro naiz (EEE edo ABEEE). Horrek, gutxienez, diru-sarreraren % 10eko murrizketa eragin dit.
- Enpresaria edo profesionala naiz eta jarduna eten edo nire jarduera ekonomikoaren murrizketa jasan dudala adierazi dut. Horrek, gutxienez, diru-sarreraren % 20ko murrizketa eragin dit.
- Aurrekoen baliokideak dire beste egoera batzuk, diru-sarreraren % 10eko murrizketa eragiten dutenak besteren konturako langileen kasuan, edo % 20koa norberaren konturako langileen kasuan (adierazi zeintzuk):

#### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

**Atal honek garrantzia legal handia du eskaera izapidetzeko.**

**DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD que he sufrido una alteración de mis circunstancias económicas como consecuencia de la crisis derivada de la COVID-19, bien porque, como trabajador por cuenta ajena, me hallo en situación de desempleo o estoy afectado por un expediente de regulación temporal de empleo o porque, como trabajador por cuenta propia sufro un cese o reducción de mi actividad económica, o sufro alguna situación equivalente a las anteriores.**

**Aipatutako nire diru-sarreraren murrizketa aurrez irabazten nuenari dagokionez, gutxienez, % 10ekoa da besteren konturako langilearen kasuan, edo gutxienez % 20koa enpresari edo profesionalaren kasuan.**

Adierazten dut badakidala emandako datuen edo dokumentazioaren faltsutasunari etekina ateratzen badiot (legezko iruzurra), ez dudala izango aukerarik luzamendua edo etenaldirik izateko, eta, gainera, sortutako kalteengatik ordaindu beharko dudala.

## Zer informazio eman dit CaixaBank Payments Consumer-ek?

Hurrengo informazioa eman dit CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.-k:

- 1. Lege informazioa.** Sektore Hitzarmenaren (ASNEF) Bigarren eta Hirugarren artikuluen transkripzio bat eman dit, koronabirusarengatik eragindako bezeroen eragiketa finantzaziodunen geroratzeari buruz, 2020ko apirilaren 27koa (1. Eranskina).

- 2. Kontratuaren ondorioak.** Jakinarazi egin dit kreditu-txartelak kontratatuta baldin baditut eta kuoten ordaintzen etetea eskatzen badut, onartzen ari naizela ahultasun ekonomikoko egoeran nagoela eta, hortaz, ezingo diedala aurre egin ordaintzeki. Ezin badiet aurre egin ordaintzeki, kontratuak baimena ematen dio CaixaBank Payments & Consumer-i baimenik ez emateko kreditu-xedapen berriak egiteko (eta aldi baterako blokeatzeko kreditu-txartelaren erabilpena) hartu ezin ditudan zor gehiago ez sortzeko. Ondorioz, kreditu-xedapen berriak blokeatuko dizkirate.

**Efektuak:** sektorekako luzamenduan (mailegu pertsonaletarako), ordainagiriaren zati bat soilik ordainduko dut, maileguaren interesen arabera. Kapitala da, berriz, hileko ordainagiriaren beste ohiko kantitatea; ez dut ordaindu beharko aldi baterako, Sektorekako luzamenduak iraun bitartean. Aplikatzen den interes-tasa jatorrizko kontratuan ezarritakoa izango da.

Sektorekako luzamenduan (ordaintza geroratzeko kreditu-txartelarako), ordainagiriaren zati bat ordainduko dut; hots, nire kredituaren interesei dagokiena, eta txartelaren interes-tasa nominala murriztu egingo da UTB %12ra. Kuotaren gainerakoa ez dut ordaindu beharko aldi baterako, Sektorekako luzamenduak iraun bitartean.

**Iraupena:** 6 hilabete.

8/2020 eta 11/2020 (3 hilabeteko iraupena duena) Errege Lege-dekretuen babesean legezko luzamendua eman den kasuetan, sektoreko luzamendu berria soilik 3 hilabeteetan zehar aplikatuko da.

Aurretik sektoreko luzamendua eman den kasuetan, gozatutako luzamenduari luzamendu berria gehituz, 6 hilabeteko iraupena izango du gehienez.

- 3. Datu pertsonalen tratamendua.** RTratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A., egoitza soziala Caleruega kalea 102, de (28033) Madril; IFZa, A08980153; Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 36.556 liburukian, 29. folioan, M-656492 orrian. Espainiako Bankuaren KFEEn Erregistroan inskribatua 8776 zenbakiarekin. zenbakiarekin.

Datu-babesaren ordezkariaren harremanetarako datuak: [www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos](http://www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos).

Tratamenduaren helburuak: bildutako datuak eta informazioa ("Datuak") beharrezkoak dira (i) eskaera kudeatzeko eta tratatu egingo dira hori tramitzatzeko eta horren legezko balioztatzea burutzeko, eta baita (ii) CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.-ri agindu dakizkiokeen betebeharrak betetzeko ere.

Tratamenduaren oinarri legitimatzailea: (i) kontratuaren egikaritzea eta (ii) CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.-ri aplikatu dakizkiokeen betebeharrak betetzea.

Datuen jakinarazpena: agintari eta erakunde publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie datuok, eskatutako lege-betebeharrak betetzeko, eta baita zerbitzu-hornitzaile eta beharrezko hirugarrenei ere, eskaeraren kudeaketa eta betetzea egiteko.

Datuen gordealdia: eskaera honen arabera, datuak tratatu egingo dira indarrean mantentzen diren bitartean horretatik eratorritako harremanak.

Zure datuak tratatzeko baimena ematen badiguzu helburu komertzialetarako, datuok tratatuko ditugu baimena kendu arte, edo CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A. enpresarekin dituzun kontratu- edo negozio-harremanak amaitu arte.

Datuak mantendu egingo dira (aipatutako harremanetatik eratorritako ekintzen preskripzio-epeak irauten duen bitartean) soilik eskatutako legezko betebeharrak betetzeko eta erreklamazioak adierazi, erabili edo defentsarako.

**Eskubideak baliatzea:** Datuen titularrak hurrengo eskubideak erabili ahal izango ditu: sarrera, zuzenketa, aurkaritza, ezabapena, mugatzea eta eramangarritasuna. Ariketa hori araudiari jarraituz egingo da, CaixaBank-en bulegoetan, posta-kutxa 209-46080 Valentzia erabiliz, [www.caixabankpc.com/ejerciciodederechos](http://www.caixabankpc.com/ejerciciodederechos) helbidean edo horretarako banku digitalean edo mugikorrean gaitutako aukerak erabiliz.

Horretaz gain, Datuen tratamendutik eratorritako edozein erreklamazio bideratu ahal izango diozu Datuak Babesteko Espainiako Agentziari ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).

Data eta titularraren sinadura (\*)

## Nola sinatu dokumentua?

- Bete eremuak, inprimatu eta sinatu
- Bidali eskaneatuta, edo egin kalitate handiko argazki bat eta bidal [suspensiondepago@caixabankpc.com](mailto:suspensiondepago@caixabankpc.com) helbidera
- Nahiago baduzu, deitu 900 101 734 zenbakira zure mugikorraren bidez sinatzen lagun diezazugun

**Eranskina | KORONABIRUSAREN KRISIAK ERAGINDAKO BEZEROEN FINANTZIAZIO-ERAGIKETEN GERORATZEARI BURUZKO SEKTORE HITZARMENARI DAGOKION ERANSKINA, ASNEF-EKO ADMINIS-TRAZIO-KONTSEILUAK ADOSTUA 2020KO APIRILAREN 27AN.**

**(2. eta 3. artikuluen transkripzioa)**

**BIGARRENA. Sektore Hitzarmenaren iraupena**

EBA/GL/2020/15 ildoetan barne hartutako aurreikuspenen arabera, Sektore Hitzarmena indarrean egongo da 2021eko martxoaren 31ra arte, hori izango da Sektore Hitzarmenaren eranskin honen babesean eskaerak aurkezteko epemuga.

EAurreko paragrafoan aurreikusitako iraupen epea luzatu ahal izango da EBA-k hala adosten badu; kasu horretan, ASNEF-ek hori jakinaraziko luke web-orrian argitalpena eginez.

**HIRUGARRENA. Sektore Hitzarmenaren babesean emandako luzamenduen epea.**

3.1. 2020ko irailaren 30etik aurrera eskatu ziren eta data horretatik aurrera eman diren luzamenduek hurrengo epeak izango dituzte:

3.1.1. Hipoteka bermedun mailegu edo kredituen luzamenduak, gehienez, bederatz (9) hilabeteko epea izango du, Sektore Hitzarmenaren onuraduna den bezeroak eskatzen duenaren arabera, horretarako erakunde bakoitzak ezarritako tarteen arabera.

3.1.2. Mailegu edo kreditu pertsonalen luzamenduek gehienez sei (6) hilabeteko epea izango dute, Sektore Hitzarmenaren onuraduna den bezeroak eskatzen duenaren arabera, horretarako erakunde bakoitzak ezarritako tarteen arabera.

3.2. Atxikitako erakundeak 2020ko irailaren 30a baino lehen hipoteka-bermedun mailegu edo kredituen luzamendu bat edo gehiago eman baditu, izan hitzarmenezkoak edo legezkoak, eta guztira 9 hilabete baino epe laburragoa badute, erakundeak, bezeroak hala eskatuta, luzamenduaren iraupena luzatuko du, aurreko 3.1.1. atalean adierazitako gehienezko epera iritsi arte.

Atxikitako erakundeak mailegu edo kreditu pertsonalen luzamendu bat edo gehiago eman baditu, izan hitzarmenezkoak edo legezkoak, eta guztira 6 hilabete baino epe laburragoa badute, erakundeak, bezeroak hala eskatuta, luzamenduaren iraupena luzatuko du, aurreko 3.1.2. atalean adierazitako gehienezko epera iritsi arte.

3.3. Argitze aldera, adierazi nahi da Sektore Hitzarmenaren arabera 2020ko irailaren 30a baino lehen emandako luzapenak (horien iraupena 9 hilabete baino handiagoa den kasuetan) ez daudela EBA/GL/2020/15 ildoan eraginpean, eta horientzat EBA/GL/2020/02 ildoetan aurreikusitako tratamendua mantenduko da.